

II. Kolazinoko Mendi Eguna egingo da martiaren 19an Bedian

11. orrialdea

San Josetako bertso saioa

Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbiok bertso saioa eskeiniko dabe Igorreko Kultur Etxean, martiaren 19an. Arratiako bertso saiorik zaharrenetakoa da Igorreko San Josetako bertso saioa eta puntako bertsolariak hartzean dabe parte bertan urtero-urtero. 12. orrialdea



Dimak eta Lemoak txapelak lortu dabez trinketean

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

248

2016ko martiaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Dimako memoria historikoa jasoteko proiektua abian da

Herriko memoria historikoa jasoteko, bi-hiru urteko proiektua abiatu dabe Diman. Proiektu honen lehenengo ekitaldia, martiaren 4an Manu Aurrekoetxeak emondako berbaldea izan zan. Bertan, he-

rriari bizi izandako gertaerak azaldu ebazan Aurrekoetxeak eta Sabino Izak bere testigantzea emon eban. Errepresaliaduen gaineko saio monografikoa eta frontearen ibilbidea aurkeztuko dabez aurrerago. 8. orrialdea



Bedia, Lemoa eta Zeanurik aurrekontuak onartu dabez



Bedian, EAJ-PNVk aurtetzutako kontuak EH Bilduren kontrako botoakaz onartu ziran eta Lemoan, EH Bildukoak, EAJ-PNVren abstentzinoagaz. Zeanurik hasikera baten onartu egin ziran aurrekontuak EAJ-

PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz, baina behin-behineko onarpena izan da. Izan be, akats aritmetiko bat egoan eta alegazio epean zuzenduko dabe hori akatsori. 5., 6. eta 7. orrialdeak

ARRATIA

TTIP akordioaren kontrako bizikleta martxea

NATO ekonomikoari ez lelopean, martiaren 12an Merkataritza eta Inbersino Akordio Transatlantikoaren (TTIP ingelesez) kontrako bizikleta martxea egin eben Arratian. Hainbat herri eragilek deituta, txirindulariak Bediatik Zeanurira eta handik Igorrera buelta egin eben, TTIParen gaineko informazioa emonez.

Arrastian, TTIParen ondorioen gaineko bideoak ikusi ahal izan ziran Igorreko Kiñu Gaztetxean. 6. orrialdea



ARRATIA

LABek prekariedadearen kontrako kanpaina ipini dau martxan

Egun lanpostu bat izateak ez dauala langilea pobrezia arriskutik libre izaten ikusita, LAB sindikatuak 1.200 euroko gitxieneko soldatea eta 35 orduko lan-astea lortzeako kanpaina hasi dau Arratia-Nerbioi eskualdean. Holan, prekariedadeagaz amaituteaz gainera, 7 lanpostutatik lanpostu barri bat sortuko litzateke, Arratian 300 inguru. Arratiako langabezia-tasa % 12 inguru da, LABek emondako datuen arabera. 5. orrialdea

Arratia Bidaiak

655 661 171
656 737 460

- Hotelak
- Hegaldiak
- Zirkuituak
- Itsas bidaiak
- Bidaien gestino osoa

Zure oporrak preziorik onenean Arratia Bidaiak egaz Etorri geugana!

info@arratiabidaiak.com
www.arratiabidaiak.com

DIMA

Arratiako Egoitzak Libera-Care eredia ezarri dau

Arratiako egoitzak Libera-Care eredia ezarri dau eta lokarri bako zentroa izango da. Egoitzak 2013an emon eutsan hasikerea prozesu honeri eta ekipamentu barrietan, lehendik egozaren egokitzapenean eta bertako beharginentzako prestakuntzan inbertidu dau horretarako. Euskadi osoan lokarri ez erabilteko prozesua hamar egoitzak abiatu dabe. 5. orrialdea

Arratiker, S.L. Eraikuntzak

Mota guztietako pabimentua
Hormigoitza
Asfaltoa...

Zubizarra 4, behea
Areatza · 94 612 75 31 · 688 616 816
administrazioa@arratiker.biz

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

DIMOZTAR BAT BI BIDER BILBOKO ALKATE.
SANTIAGO MARIA INGUNZA ZAMAKOLA (1787-1869) (II)

Sasoi honetan beste lan bi amaitzeaz egon ziran, Areatzako Zubia eta Bilboko Plaza Barria, bietan burubelari sartuta, bai bata eta bai bestea bere osaba Simon Bernardo Zamakolaren asmoakaz lotuta: Bizkaiko uri eder eta moderno bat bihurtutea batetik eta Bizkaian goi mailako portu handi bat lortutea bestetik, hau salerosketarako gero eta garrantzitsuagoa zalako.

Santiago Maria, Biurteko Progresista heldu zanean, 67 urte eba-zala, 60 urte baino gehiago eukitearren eta protesta egitearren, osteria izentau egin eben, bigarrenez, Bilboko alkatea izateko. Agintaldi honetan kolera morboaren epidemia izan zan gogorrena, behin-behineko ospitaleak antolatu behar ziran eta, gainera Abando,

artean udal independentea, eta Bilbo arteko eztabaida biziak egon ziran San Frantzisko komentuari emon beharreko erabilerearen inguruan, ea eskola, ortusantu, kuartel edo ospitale izan beharko ete zan. Gitxi izango balitz, ogiaren prezioa igon zan eta behartsuen kopurua handiagotu zanez udalaren dirua erabili zan ogia pobreak emoteko. Gainera Krimeako Gerra zala eta European urunaren prezioak gorantz egin eban; egoera larri honetan prezioak jaitea lortu eban ogiaren ekoizleak akordioa lortu eta gero, eta bilbotarrak bere jokaerea harrotasunez gogoratu-ten dabe.

Biurteko Progresistan ebatzi zan Iberiar Peninsulako tren sarearen ibilbidea, eta bertan Madrid-Irun

trena ez zanez Bizkaitik pasetan, gure Jaureria modernidatetik kanpo geratu zan eta esportazioak ez ziran gure portuetatik joan. Arazo hau konponduteko, agintarien artean beste linea bat egitea ebatzi zan, Bilbo-Tutera zalakoa, aurrekoagaz Mirandan alkartu eta Errege Agindu batek 1857ko bagilearen 6an onartu ebana. Dirua lortu eta enkantean parte hartutea beharrezkoa zan beraz, eta honetarako bizkaitarren izenean konfiantzazko gizonak beharrezkoak ziran. Santiago Maria Ingunza (ordurako 70 urte eukazan) eta Juan Angel Zorrozuau aukeratu ebezan eta honeexek joan ziran Madrilera, abuztuaren 31n emondako baldintzakaz enkantean ferrokarrilaren konzesinoa lortuz. Dirua akzinoen



"Instituto Vizcaino".

bitartez lortu beharra egoan eta gure dimoztarra, 62.500 pezeta ipinita, akzinodunen artean nagusien artean egon zan.

Ferrokarrilaren lanak Vignoles injenieru ingeles ospetsuaren zuzendaritzapean egin ziran, eta holan, 1863an Nafarroako Erri-

bera eta Bizkaia alkartu ziran, gainera hemendik Kataluniara egun berean helduko ziran (Mediterraneo eta Atlantiko itsasoak lotuz). Holan, hurrengo urtean 1864an Bilbotik Parisera trenez joatea posible izan zan.

Iñaki Esparza

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Martiazen 14tik 20ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 21etik 27ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 28tik apirilaren 3ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 673 92 69

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzen da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta


16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioariek ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Bertsoak

Entzun Arratia gazteria, gaur dugu denon eguna, geure arbasoen hizkuntza zaharra, defendatuko duguna. Arratiatik Euskal Herrira zabalduko da oihartzuna. Denon artean denok batera, ziur lortuko dugula. Arratiatik Euskal Herrira, zabalduko da oihartzuna. Denon artean denok batera, gora herri euskalduna!

Geure hizkuntzan erabilera, doa gero eta txarrago. Euskara gutxi egiten da gaur Barazarretik harago. Baina arbasoen ohitura eutsi, sentitu euskaldunago. Euskal Herrien euskaraz egin, biziko gara pozago. Euskal Herrien euskaraz egin, biziko gara pozago.

ANDONI VAZQUEZ ASPE

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Eskubitor



Personearen besogain eta eskuaren arteko artikulazioa esateko eskubitor (eskubitorra, agoskatuta), eskubitor edo Zeberio aldean entzuten dan eskutor berbak erabilten doguz. Batuz, eskumutur da. Gorputz-atal honetan adonu edo apaindurak eroan dira betidanik. Ordua jakiteko, erlojua erabilten dogu eskubitorrean. Osasun arloa jo ezker, gure pultsua eta tensino arteriala hartzeako lekua be bada.

ERETXIA

Errefujiaduen arazoa eta fikzinoa



CLARA LUJA AZPIRI

Kazetaria

Aste honetan errefujiaduen barri txarrak jaso ditue: Europa eta Turkiaren arteko akordioak Europa zarratuko dau eurentzat. Turkiatik datozenak ezingo dira Europako geratu eta erbesteratuko ditue. Akordio polemikoa izan da, zuzenbide internazionalaren kontra doalako, giza eskubideen kontra joateaz aparte. Ez bakarrik zarratu ditue Europako mugak, gainera bide alternatiboak kontuz ibili beharko dirala esan dau Herbehereetako Migrazino ministroak, Klaas Dijkhoff-ek.

Berba bat errepikatzen da errefujiaduan buruzko albisteetan: "arazo". Euren presentzia arazo bat da; euren existentzia bera, arazo. Migratzaileen tragedia birkokapen kontu bihurtu da, Europako herriarentzat eragozpen bat. Siriako biztanleak euren etxeetatik igesi doaz euren herria gerran dagoalako, eta Europak oztupoak baino ez deutse ipinten, jentea harrapatuta eta aukera barik itxiz. Milaka laguneri zarratu jakiez ateak, eta Europar Batasunaren hasikerako baloreak be desagertu dirala dirudi.

Gobernuak ez dira errefujiaduak kontra daukien gauza bakarra: fikzinoaren diskurtsoak be, ez dirudi alde daukiezanik. Gaur egun, fikzino mota popularrenak telesailak dira. Telesailak daukie publikidade gehien, audientziarik handienak eta abar. Momentu honetan, personaje musulmanak dituan telesail bat dago Espainiako Tele 5 katean, Ceutan girrotuta dagoan "El Principe" saila da, eta, zelan ez, personaje honeetako gehienak gaizkileak dira. Batzuk narkotrafikatzaileak, beste batzuk terroristak... Kasu honetan, musulmanak Espainiako poliziak konpondu behar dauan arazo bat dira.

Telebistan ikusten dogunak, albisteetan zein fikzinoan, eragin handia dauka gure pentsamol-

dean. Hedabideak gorputzen dabe munduan gertatzen danagaz daukagun erlazinoa hein handiago edo txikiago baten. Stanford unibersidadeko Albert Banduraren ikerketak frogatu daben moduan, telebistako fikzinoan minoria etnikoak dituen es-

teriotipoak, ikuslearengan eragin nabaria daukie, eta errealidadean be, personak estereotipoen modukoak dirala sinistera heltzean dira askotan ikusleak. Gerratik igesi datozen siriarrak erlijino askotakoak dira, baita laikoak be. Europako erlijino askotako jentea dago, baita laikoak be. Baina, imaginario estereotipau horretan, errefujiaduak musulmanak dira eta fikzinozko film eta sailetan ikusten doguzan musulmanak gaizkileak badira, irudi hori erabili daiteke bildurra sortzeako eta arazo bihurtzeko.

Gauzak sano desbardinak dira migratzaileak ez diranean beste herri edo kultura batekoak: migratzaileak geu garenean. Telesailen adibideagaz jarraituko dot, hau oso argi ikusten dala iruditzen jatalako. Antena 3en "Buscando el norte" saila hartuko dot orain adibide moduan. Bertan, Espainatik Alemaniara doazen emigratzaileen historia kontetan da. Enfoke guttiz positiboa dauka telesailak, eta emigrante honeetako bakar bat be ez da gaizkile edo delinkuente. Kasu honetan emigratzaileak ez dira arazo bat, baizik eta historia bat daukien andra eta gizonak. Protagonistak dira eta ez antagonistak.

Gerratik datozen errefujiaduak kontra daukiez Europako gobernuak, Europar Batasuna eta Turkiaren arteko ituna, eta Europako fikzino askoren diskursoa. Europako herritarak eta Euskal Herrikoak be bai, emigratzaileak izan dira eta dira, eta tragedia honen aurrean zelanbait laguntzen saiatzen dira. Holan, Euskal Herriko uriburuetan eta hainbat herritan errefujiaduen aldeko mobilizazioak egon dira, pasabide seguruak eskatuz, eta "ongi etorri errefuxiatuak" adierazoten daben pankartak erakutsiz.

Hata guzti be, gitxi egin daiteke autoridadeak ez baditue Europako ateak zabaltzen. Gobernuen ezetzaren aurrean jentek lagundutako ezintasuna sentiduten dau, podere eza. Holango tragedia bat ikusi eta lagundu ezin izatea, hori bai dala benetako arazoa!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkainatzen Batzua gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

"V for Varoufakis"

Berez, esatera noana kritikau gura dodanaren eremuan jausten da. Galdera bat: egunkarietan, telebistan edo irratian irakurri, ikusi edo entzuten doguzan barriak zenbateko sakontasuna izaten dabe? Ez dot erantzungo. Denporea ondasun urria dan gure mundu honetan ezin deusagu ezeri atenzino lar eskeini, eta denporea daukagunean be gurago izaten dogu egiten doguna azalekoa izatea, buruhausterik sortuko ez deuskun zeozer. Agian komunikabideak hori ondo asko dakie eta ez gaitue aspertu gura argudio konplejuen azalpenakaz. Agian. Eta, hata guzti be, gure eretxiak sendoak dira, (ustez) ondo informatuak, pasinoz defendidutekoak eta defendiduak.

Informauta egotearen harira, Yanis Varoufakis aitatu gura dot, orain dala egun batzuk Espainiara bisita egin dauan greziar ekonomilaria. Nork ez dauka

eritxi sendo bat greziar ministrari ohiarri buruz? Eta nork ez ditu ezagutzen haren argudio ekonomikoak Europako Batzordearen kontra egoteko? Bigarren galdera horrek kontrakoa emon gura dau aditzera, noski. Kontua da La Sexta Columna telebista programan Varoufakiseri egindako alkarrizketa bat iragarri ebela. Eta nik pentsau neban azkenik izango genduala zuzenean haren ideen barri izateko aukerea. Tamalez, nire pozak putzuan amaitu eban. Badinot, sakontasunak ez dauka lekurik telebistan, bai ordea karrikatureak eta klixek.

Jan Böhmermann alemaniar komikoak eginiko "V for Varoufakis" abesti satirikoak dinoanez, Varoufakisek "ez dau negoziatan; eperdietan ostikadak emoten ditu", eta, gainera, "alemaniarren aurrezkiak gastau gura ditu". Horri gaineratu beharko geunskio, hareri egindako kritikea biribiltzeko, satira guztiz baztertu barik, Varoufakisek ez daukala korbatarik erabilten eta BMW ziklomotor baten gainean joaten zala beharrra ministraria zanean. Guztia politikari txarra zanaren seinale, noski. La Sexta Columnan Varoufakisek esandako esaldi batek pentsakor itxi ninduan: "Hamar urteko ume batek be ulertuko leuke". Ulertu zer? Ez egoan azalpen gehiagorako astirik.

ZERTZEAN

Gaia jarrita: "Zelan gurako zeunkie itxartutea martiaren 9an?"

ZEANURIKO BERTSO ESKOLEA

1

Beti aipatzen da mundu honetan andrearen ezbeharra egia dala diñodan arren andreak dauka indarra berari esker hona gatoz ta berari esker jaiotzen gara ama ama da, ezin ukatu bera dala suaren garra.

2

Amaren sua berbiztu beharko gure aitaren etxean abegia eta alkartasuna eskeintzen dauku egitean emakumeak eta gizonak bardinak gara izatean ez dut uste nik hau holan danik gure gaurko gizartean.

3

Hainbat mespretxu egiten jake emakumei munduan gizona beti agintean eta emakumea okuluan mendez mendetan bizi izan dabe saminean ta llantuan gorazarrea merezi dabe jarri daiguz ba tronuan.

4

Milaka urtez izan garenez patriarkal dugun sisteman amaren suak garra hartuko ei dau hemendik aurrerantzean berbiztuko dan seguru nago ez gabiz ondo ostantzean mundu barri bat sortuko da ba oraingo hau amaitzean.

5

Umeak zaindu etxea gorde kanpoan ere tamalez holan bizi da gaurko andrea kosta ala kosta ahaleginez, lan prekarioa besterik ez dau ta soldata askorik ez injustiziak danean dira gurean ere zoritxarrez.

6

Ai ama, ai ama, esaten dogu arazozen baten aurrean beti amari deitzen dautsagu ezbeharra dogunean, bizi goxoa ekartzen dabe guk ereindako lurrean kimuak fruitu bihurtu daitezen danok gabiltza lanean.

BEGI TXINDORRA

2015eko urrian Emakumeen Mundu Martxa Arratiatik pasetan zala-ta Areatzan burutu genduan ekintza sinbolikoan okarantxo bat landatu genduan.

Bertoko okarana aukeratu genduan frutu asko emoten ditalako eta bere lore goiztiarra txikerra baina gogorra bezain ederra dalako.

Ba, hara! Gure okaranak bere lehenengo lorea zezeilaren 11n emon eban; noz, eta Arratian Andron Jabekuntza Eskolea izango dogula enterau ginan astean bertan.

Ezin izan deusat lotureari muzin egin!

Maite Artabe Urkiri



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargoa

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbate 100
R.P.S. 21/06

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMDA (Bikala)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

24h Egunkari Ogiak

EGUNEKO OGIA

vending pan

IGORRE
Lehendakari Agintea

ARRATIA

Prekarietatearen kontrako kanpaina abiatu dau LABek



Basaurin emondako prensaurrekoa.

LAB sindikatuak emondako datuen arabera, kontratu barrien % 94 aldi baterakoak dira, gehienetan epe laburrerako, gero eta gehiagotan egun baterako edo aste baterako, eta asko, lanaldi partzialekoak. Honek etenbako pobretzea eta langileen eskubideen urraketea dakar.

Erredakzioa

Horregaitik, LABek, prekarietatearen kontrako kanpaina abiatu dau. Sindikatuaren arabera, prekarietateagaz amaituteko, 1.200 euroko gitxieneko soldatea eta 35 orduko lan-astea ezinbesteko neurriak dira.

Sindikatuak adierazo dauanez, gaur egun lanpostu bat izateak ez dau pobrezia arriskutik libretan. Izan be, enplegua daukien 10 langiletik 2 pobrezia mugetatik behera bizi dira eta 10 langiletik 4, lana euki ala ez, pobreak dira. Horren aurrean, 1.200 euroko gitxieneko soldatea aldarrikatzen dau sindikatuak, Europako Karta Sozialaren erreferentzia hartuta. Eta derrigorrezko lanaldi partzialak amaituteko, eta miseria-riazko soldaten osagarri diran ordu estrak baztertuteko, 35 orduko lan-astea eskatzen dau LABek. Lanaldi honegaz, gaur egungo 7 lanpostutatik, lanpostu barri bat sortuko litzateke. Arratian 300 inguru eta Arratiako langabezia-tasa % 12 da.

Neurri honeekaz, langileen lan eta baldintzen kalitatea hobetu, aberastasuna hobeto banandu eta laneko istripu eta heriotzak gitxitez gura dau sindikatuak.

Prekarietatearen aroa

Hazkunde ekonomikoaren diskursoak, krisia amaitu eta langabezia jaisten dagoala dino, baina hori ez da ikusten ez kalean ez lantokietan. Krisi sasoiak baliatuz, laneko eskubideak eta eskubide sozialak

suntsitu dirala salatu dau sindikatuak. "Aro barri baten aurrean gagoz: prekarietatearen aroa" dinoe.

Izan be, langileen errealitatea sano gordina da: flexibilitate eta lan jardunaldi luzeegiak, derrigorrezko ordu estrak miseria-riazko soldaten osagarri; 1200 euro azpiko soldatak... Eta aberastasunaren banaketea, gero eta desorekatua goa da eta arrakala soziala gero eta handiagoa. Holan, atzen bost urteotan, Ixex 35a osotuten daben enpresetako ejekutiboen soldatak % 80 igon diran bitartean, langileen soldatak % 1,5 jeitsi dira.

Akordioak eta mobilizazioak

"Abian ipiniko dogun dinamikeak bilatzen dau langileak jabetzea gaur egungo egoera gainditzea posible dala" dinoe sindikatutik. 1.200 euroko gitxieneko soldatea eta 35 orduko lan-astearen aldarrikapenak eroango dabez lantoki eta herri guztietara. Eta alderdi politikoai "exijidu behar deutsegu udaletan neurri honek apliketako bertoko zein azpikontratatutako langileai".

Horretarako LABek langile asanbladak, enpresa komiteko bilerak eta hainbat ekimen egin gura ditu, ahal dan neurrian beste sindikatuakaz akordioak lortzeako eta indarrak batzeako. Eskualdeko eragile sozialakaz hartu-emonetan be ipini dirala emon dabe jakitera. Gauzak holan, dinamikea aurrera joan ahala, mobilizazioak egitea aurrekusten dau sindikatuak.

BEDIA

Errekaondo urbanizetan hasteko 2016ko kontuetako diru partidarik handiena

Martiaren 1ean onartu ziran Bedian 2016ko aurrekontuak, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz.

Erredakzioa



Kontu honeen arabera, udalak 1.298.747,67 euro kudeatuko ditu; igaz baino 119.724,39 gehiago. Gainera, frontoia amaituta dagoanez, inbersinoetarako dirua

egongo da. Inbersino handienak, Errekaondo 3-5 eremukoa eta Jaurerri auzuneko urbanizazio proiektuaren erredakzioa izango dira.

Apaltasunean, gastuaren kontrolan eta udal kudeaketearen eraginkortasunean oinarritutako kontuak dira Aitor Sorriketa alkatearen arabera. Izan be, "zor bako eta ondo kudeatutako" udala izatea eta "aurrekontuen oreka" gordetea da kontuon helburua.

Zergak ez dira igoko, "herriko familien egorea gatzago ez egiteko".

Inbersinotarako dirua

Inbersinotarako 328.000 euro dagoz; igaz baino % 57,72 gehiago. Udalak ez dauka zor finantziariorik eta gastuak jagokienean, langileentzako diru partidea % 1 igon da eta gastu arruntak % 9,5 gitxitu dira. Udalkutxari 40.000 euro itzuliiko deutzaz Bediak.

DIMA

Arratiako Egoitzan ez dabez egoiliarrak lotuko



Erredakzioa

Arratiako Egoitzak Libera-Care eredu ezarri dau eta lokarri bako zentroa izango da. Egoitzak 2013an emon eutsan hasikerea prozesu honeri eta ekipamentu barrietan, lehendik egozaren egokitzapenean eta bertako beharmentzako prestakuntzan inbertidu dau horretarako. Euskadi osoan lokarririk ez erabilteko prozesua hamar egoitzak abiatu dabe.

Arratiako Egoitza Mankomunitateko erakunde autonomoa da, Libera-Care Araupean behar egiten dau eta lokarri bako zentro moduan

dago egiaztatuta. Hori dala eta, asistentziarako beste aukera batzuk eskeintzen deutsez egoiliarrai eta senideai, edadekoen bizi-kalitatea hobetuteko. Izan be, Libera-Care ereduagaz zaindutako personearen nahiak eta beharizanak kontuan hartzea eta bere duintasuna eta autonomia bultzatzea bilatzen da.

Urteetan, egoitzetan erabili izan dira lokarriak egoiliarrak babesteko neurri moduan, autolesinorik ez gertatzeko edo ohetik ez jausteko, berbarako. Orain egoitza batzuek lokarriak kentzeako eta pertsonen duintasuna zaintzeko erabagia

ZEANURI

Harribide Fundazinoarako jatekoa batuko dabe Zeanurin

Erredakzioa

Martiaren 24tik 27ra arte, Batu eta Banatu izeneko kanpaina egongo da martxan Zeanurin. Kanpainearen helburua galtzean ez diran jatekoak batzea da, Harribide Fundazioaren bitartez, gazte etorkinai bananduteko. Jatekoak Zeanuriko Andra Mari eleizan batuko dira.

Harribide Fundazioa Etxebarriko parrokia eta erakundeak osotuten dabe. Harribidek sei harrera-etxebizitza ditu etorkinentzat Bilbon eta Etxebarrin, hezitzaile eta boluntarioak tutorizata. Proiektu honetan gazte etorkinakaz egiten dau lan fundazioak.



BATU ETA BANATU

hartu dabe. "Jagoteko modua aldatzea da helburua, egoiliarrengana hurreratzeko modua, alegia. Azken baten, gure edadekoen atentzioagaz zerikusia daukien arlo guztiak are gehiago gizatiartzea da xedea. Horretarako, behargin guztiak ahalgin handiagoa egin eta atentzino handiagoa eskeini behar badabe be, emoitzak oso agirikoak dira, baita egoiliarren gogobetetasuna be", azaldu dau Naiara Zamalloak, Arratiako Egoitzako zuzendariak.

Duintasuna eta bizi-kalitatea

Lokarririk ez erabiltea duintasunerako oinarizkoa izateaz gainera, egoiliarren osasunerako hobea da eta senide eta jagoleentzat abantaila asko ditu. Izan be, egiaztatu egin da lokarriak kentzean diranean jangureak, muskuluen tonuak, koordinazioak eta orekak hobera egiten dabela. Horrezaz gainera, onura psikoemotional handiak be daukaz egoiliarrentzat zein senideentzat, eta atrofietako edo ansiedaderako arriskua be gitxitzen da. Lokarriak erabilten diranean, osterak, ultzerak, ahuldade fisikoa, agresibiditatea eta depresioak sortzean dira.

DIMA

Herria jagoteko deia egin dau UdalakErredakzinoa

Aspaldi honetan herriko ondarea apurtuta eta zikinkeriaz beteta agertu da behin baino gehiagotan Diman, eta Udalak arazo honen segmentua egin eta ekintzok barriro gertatuko balira, neurri zehatzak hartuko leukezala jakinarazto dau.

Herria jagotea danen ardura dala gogora arazo dau Nekane Intxaurtza Dimako alkateak, eta "gure filosofia eta pentsakerearen kontra egon arren", holango gertaerak barriro balegoz, kalteak sortutako gastuak, kaltea egin dabena ordaindu behar izango dabela jakinarazto dau. Eraikinen bat edo beste zarratuteko prest be agertu da, beharrezko ikusi ezker.



ARRATIA

Herrietan panel informatiboak ipini ebazan TTIParen kontrako martxeak**Bizikleta martxakoak Artean.**Erredakzinoa

"NATO ekonomikoari ez. Herritarrok erabaki" lemapean mobilizazioak egin ziran martiaren 12an Euskal Herrian TTIP (*Transatlantic Trade and Investment Partnership*). Merkataritza eta Inbersino Akordio Transatlantikoa) akordioaren kontra. Arratian, bizikleta martxea egon zan Bediatik Zeanuriraino eta handik buelta Igorrera. Ostein, bazkaria eta TTIParen eragina azaltzeko bideo bi ikusi ahal izan ziran Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Arratian, Igitie baseritar agroekologikoen alkateak, Noka talde feministak, Igorre bizirik talde ekologistak, Karabie Gaztetxeak, Kiñu Gaztetxeak eta

Fracking Ez Arratia taldeak antolatatu eben martxea, informazioa emon eta herritarren mobilizazioa bultzatzeko helburuagaz. "Bedia, Lemoa, Dima, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanurin ipini doguz muralak zer dan TTIPa azalduteko. Zeanurin harreara polita izan dogu eta jente asko egon da herrietan" azaldu eutsan BEGITURI Iker Yurrebaso Igitiekoak, martxearen ostean.

Akordioa eta bere eragina jentearen bizimoduan

Ameriketako Estatu Batuetako gobernu eta Europar Batasuna sekretupean eta enpresa handien presinopean dabiz negoziatan TTIPa, Atlantikoaren alde bietako

herrialdeen arteko merkataritza eta inbersinoak errezteko. Honek ekarriko leuke Europako kalidade eta segurtasun estandarrak txikitzea, multinazionalen onurarako. Mugarik Gabe erakundearen arabera, "herri eta personen burujaubetzaren murrizketea, lan eskubideen eta enpleguaren galerak, ingurumenaren suntsiketea, elikadura segurtasunaren eta tokiko nekazaritzaen aurkako

erasoa, andron bizimodua gatxago egitea, osasuna, hezkuntza eta uraren pribatizazioak..." izango dira akordioaren ondorioak TTIP 2035: *odisea para las mujeres* bideoan umorea erabiliz, azaltzen dan moduan.

Gutziz ados agertu zan, Idoia Eizmendi Nokakoa "Noka talde feministakoak TTIP-ren kontrako bizikleta martxa honetan gagoz androngan eragin handia izango dabelako zerbitzu publikoen murrizketak; betiko moduan, zaintza lanak gure gain jausiko diralako. Gero be uste dogu, elikadurearen gainean, datorrena sano gogorra izan daitekela konsumitzaile moduan".



ZEANURI

Aurrekontuetako errakuntza bat zuzenduten dago Udala, behin-behineko onarpenaren osteanErredakzinoa

Martiaren 4an, Zeanurik 2016ko kontuak onartu ebazan, EAJ-PNV-ren aldeko eta EH Bilduren kontrako botoakaz. Kontu horreek, 1.802.057 euroko diru sarrera eta gastuak aurreikusten ebezan, baina akats aritmetiko bat egoan eta diru sarrerak 1.902.057 eurokoak ziran, uste baino 100.000 euro gehiago. Udalak diru sarrerak eta gastuak bardinak izatea gura dau. Alegazio epean horreek bardingin, eta ostean, behin betiko aurrekontuak bozkatuko dirala jakinarazto deusie BEGITURI udal iturriak.

Udalaren egoera ekonomikoa aurreko urteetan baino hobea dala esan eban Eusebio Larrazabal Zeanuriko alkateak aurrekontuak bozkatzeko lehenengo plenoan. Frontoian eta udalaren beste eraikin batzuetan, energia konsumoa jeitsi eta dirua aurreztu egin dala eta udaletxeko irisgarritasun arazoa konponduteko "pauzu inportante bat" egingo dala aurtan esan eban Larrazabalek. Udaletxearen berrantolaketa-rako 16.000 euroko diru partidea egoan behin-behineko aurrekontuotan.

Behin-behineko aurrekontu honetan, diru partidarik handienak,

**Zeanuriko martiaren 4ko plenoa.**

San Migel ermitearen konponketarako eta Igetualden parkina eta uger egiteko lekua egiteko ziran. Maileguaren amortizaziorako 50.000 euro dagoz eta beste 8.500 euro maileguaren interesak eta beste gastu finatziarioak pagetako.

Diru laguntzak emoteko ordenantzak

Aurrekontuetako lehenengo bozketan, EH Bilduk diru-laguntzak emoteko ordenantzarik eza kritikau eban; baita inbersino batzuk egiteko proiektu teknikorik ez aurkeztea eta plangintza faltea

saneamenturako zein 3. adinekoentzat. Aurrekontuak egiteko moduari jagokonean, "adostasunik lortzeako aukerarik ez jaku emon. Ezta herritarrai be" esan eban Zedari Jauregi zinegotziak EH Bilduk aurrekontuai emondako kontrako botoa azalduteko.

ARRATIA

Hondakinen edukiontzien erabilera egokirako eskola gida argitaratu dau AUMk



Erredakzioa

Eskualdeko ikasleak eta familiak sensibilizetako asmoz, Arratiako Udalen Mankomunidadeak gida bat argitaratu dau, etxeko hondakinak gaika batzeako eskualdean dagozan zortzi edukiontzien gaineko erabilera egokiari buruzko informazioa emoteko: berdea (beira), horia (ontziak), urdina (papela eta kartoia), marroia (soberakin begetalak), zuria (barriro erabiltekoak), laranja (etxeko olio), grisa (gainerakoen frakzioa) eta pilentzako kanpoko edukiontzia.

Gidak 2.500 aleko tiradea dauka, eta Arratiako ikastetxeetan banatu

da. Edukiontzi marroiaren bidez, zein etxeko konpostajearen bidezko gai organikoaren kudeaketa egokiari buruzko aitamen berezia egiten dau. Era berean, beste zerbitzu batzuen gaineko informazioa be eskeintzen dau, besteak beste, taimana handikoen gaikako bilketearen eta eskualdeko Garbigunearen gainekoa. Erosketa eta konsumo jasagarriko eta berrerabilerarako jarraibideetan oinarritutako aholkuak be emoten ditu, hondakinak sortzea saihesteko.

Gida Arratiako Udaletan eta <http://www.arratia.net> webgunean egongo da eskuragarri.

LEMOA

Diru gitxiago izan arren, proiektu estrategikoak mantendutun dabezan aurrekontuak onartu dira Lemoan



Lemoako plenoa.

Erredakzioa

Martiaren 10ean onartutako aurrekontuan arabera, 3.826.052 euro kudeatuko ditu udalak, igaz baino 92.547 euro gitxiago. Saioa Eleja-barrieta Lemoako alkateak azaldu

ebanez, jeitsiera honen errazoiak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal-kutxatik Lemoari egokitu jakon dirua igaz baino gitxiago dala, eta, gainera, 209.014 euro itzuli behar dirala. 2016ko aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzioagaz onartu ziran.

Diru gitxiago izan arren, aurreko urteetako proiektu estrategiko guztiak mantendu egingo dirala esan eban alkateak. Holan, euskera, lehen sektorea, ingurugiroa, gazteria, memoria historikoa eta bardintasun arloetako proiektuetan aurrera egiteko dirua dago.

Diru partida barriak be aurreikusiten dira kontuotan; barbarako, eskoletako patioan aterpe bat egiteko. Eta aurrekontuak onartu ziran egunean bertan, lan horreek emoteko lizitazio pleguak be onartu ziran ago batez.

Hiri Antolamentuaren Plan

Orokorra berrikusi behar da eta horretarako be dirua dago; baita obra batzuk egiteko edo emergentzia egoerentarako be.

EAJ-PNVren proposamenak

EAJ-PNVk bere abstentzioa arrazoitu eban kontuok ez deutseela premia batzuei erantzuten eta epe laburreko dirala esanez. Merkataritza modernizetza, Gudarien parkean karpabat ipintea, babes publikoko etxebizitzak, bidegorria Lemoa beste heriakaz lotuteko eta auzo-taxia eskatzen ebezan, beste gauza batzuen artean.

Alkateak, horreetako gauza batzuen proiektuak martxan dagozala eta lehentasunak ipini behar badira be, hobetuteko beharrean dagozala esan eban. Horreek aurrera aterateko, "partida orokorrek be badagoz, eta garrantzitsu ikusten bada, atera ahal dira aurrera" batzordeetan behar egin ezker, esan eban.

AREATZA

Areatzako Udalak Whatsapp bidez bialduko dau kultura agenda

Erredakzioa

Areatzako Udalak, Whatsapp aplikazioaren bidezko komunikazio sistema bat ipini dau martxan, herritarrai Areatzako agendaren barri emoteko. Horretarako, 656 778 094 telefono zenbakia norberaren telefonoan gorde eta zenbaki horretara Whatsapp mezu bat bialdu behar da, agenda berbea eta norberaren izen-abizenakaz.

Holan, Areatzako kultur eta kirol agendako hitzorduen barri jaso ahal izango da: herrian antolatzen diran mendi urtekerak noz diran, futbito partiduak, kontzertuak, eta

abar. Areatzako Udalak aste bakoxtxaren hasieran aste horretako programazioaren laburpena bialduko dau, eta Areatzako Udalaren webgunean informazio osotua goa argitaratuko da. Ahalik eta informazio osotuena emoteko, udalak berak antolatutako ekintzez gainera, beste eragile batzuek antolatutako barri be emongo dau; hau da, alkarteak, Gaztetxeak edo tabernak antolatutako ekintzen barri. Mezuak euskeraz eta gaztelaniaz izango dira.

Oraingoz herri mailako informazioagaz funtzionauko dau sistemeak; hata guzti be, aurrerantzean

Arratia eskualdeko beste kultur eta ekintza batzuen informazioa zabaltzeko aukerea izatea espero dau Areatzako Udalak.

Prozedura

Informazioa Whatsapp sistemeak eskeintzen dauan Hedapena (Difusión gaztelaniaz) aukerearen bitartez bialduko da; hau da, udalak ez dau Whatsapp talde bat sortuko. Mezu berbera lehenagotik sortutako telefono zerrenda bateko zenbaki guztiak bidaliko deutse, baina zerrenda horretako kideak ez dabe beste kideen barri izango.

Udalak, antolatzaileak azaldu-tako informazioa bidaliko dau. Beraz, ekintzaren informazioa bidaltzen dauan unetik zerbaist ekintzan eragina badauka, ez da udalaren erantzukizuna izango.

	JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
	Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
	Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
	Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre
	2 urtekoa 18ra	

DIMA. MEMORIA HISTORIKOA

Memoria historikoa errekuperetako beharrean hasi dira dimoztarrak

Txumuluxueta Kultur eta Kirol Elkartean kultura zelanda landu eztabadaitzen egozala, Gerra Zibilaren gaia agertu zan. "Diman zer gertatu zan?" izan zan itauna eta itaun horrerri erantzuteko testigantza zuzenak jasoten eta orduko aktak irakurten hasi ziran. Martiaren 4an, Manu Aurrekoetxeak "Gerra zibila Diman: ezagutu daigun" berbaldian, orduko gertaera eta dimoztarrak gertatutakoaren barri emon eban. Sei urtegez gerratik igesi joan zan Sabino Izaren testigantza zuzena eta Mariano Bilbao orduko alkate errepresaliduen bertsoak entzuteko aukerea be egon zan berbaldian.

Erredakzioa

Dana dala, Dimako memoria historikoa jasoteko proiektu hau hasi baino ez da egin. Izan be, bizpahiru urtetako proiektua da. Txumuluxueta alkarteak ipini dau martxan Dimako beste alkarte eta herritarren laguntasunagaz. Hiru helburu daukiez: historia ezagutzea, herri moduan aurrera egiteko; Gerra Zibilean, heriotza, kartzela eta abar sufridu ebenak gogora ekarte, eta holangorik barriro ez gertatzea. Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, egiaren ezagutzea, erreparazio morala eta justizia egitea biktima guztien eskubideak dira. "Gaurko hau, egiaren ezagutzarako izango da" esan eban Manu Aurrekoetxeak.

Ekimen hau, ekimen zabala

da eta Dimako Udala, herriko alkarteakaz eta herritarren laguntzeagaz aterako da aurrera. Errepresaliaduen gaineko saio monografikoa eta Dimako frontearen ibilbidea egiteko asmoa dago, besteak beste. Ibilbidea, Altun, Zumeltza, Saibegain eta Aramotzetik pasauko da, lekuak, trintxerak eta gordelekuak ezetuten emoteko. Jasotako datu eta dokumentazioagaz erakusketea egin eta argitalpen bat kaleratuko dabe. Antolatzaileak, gerraren kausaz hildako edo-eta errepresaliaduen izen edo datuak dakienai, eurekatz kontaktuan jartzea eskatzen deutsee, biktima guztien memoria jaso ahal izateko.

Dima 1931-1937

1931n, Dima zan Arratian zinegotzi gehien eukan herria. Barruti

bi egozan orduan, Dima Escuelas eta Dima Ugarana, 6 eta 5 zinegotzigaz hurrengo hurrengo. Partidu politiko bi egozan: tradizionalistak eta nazionalistak, hain zuzen. 1931 eta 33ko hauteskundeetan, Dima Escuelas barrutiko zinegotziak, Vicente Elorza, Tomas Ibarrondo, Ezequiel Soloeita, Jose Iza, Candido Zalbidegoitia eta Vicente Vizcarguenaga izan ziran; Dima Ugaranakoak, barriz, Antonio Gordejuela, Mariano Bilbao, Nemesio Arriortua, Pedro Iturrate eta Martin Bernaola. Gerra sasoiari Mariano Bilbao izan zan alkate.

1936ko garagarriaren 12an, Tomas Ibarrondo alkateak kargua itxi eban eta Mariano Bilbao hartu eban hori karguori. Bilbaoren agindupean, Dimako Udalak hainbat ebatzi hartu ebazan gerrarako prestatzeko. Neurri horreek jenteari lagundutea eukien helburu eta horreen artean egozan, gerrarako ezohiko aurrekontua egitea, janariak bermatzeko arduradunak izentatzea eta ganadu eta ortuariak herritik kanpo saltzeako debekua, beste neurri batzuen artean.

1937ko martiaren 29an, frankistak Urkiola, Zumeltza eta Barazar mendateak hartzea agindu eben. Bizkaia babesten eban kuartel nagusia Igorren egoan eta hiru frente izan ebazan. Dima sano kaltetua izan zan eta 1937ko maiatzaren 23an jausi zan frankisten eskuetan.

Gerreak ondorio larriak izan ebazan: hainbat dimoztarren heriotza, atxiloketa eta erbestertzea ekarri eban. Kalte ekonomiko handiak eragin ebazan, ideologia desbardinen artekoen salaketak, umeak ikasturte bat galdu eben eta andrazkoen kontrako erasoak gehitu egin ziran gerra denporan eta gerraostean.

Gerraostea 1937-39

Bagilean udal gestora bat sortu zan eta 1937ko urri bigarrenaren 2an, udal barria osotu zan. Vicente Vizcarguenaga izentau eben alkate eta Tomas Ibarrondo alkateorde. Hartutako lehenengo

ebatzien artean, Nafarroako Brigadai omenaldia edo kale izen batzuk aldatzea egon ziran, tartean, Dima hartutako eguneko kalea, maiatzak 23, hain zuzen be. 1939ko aprilaren 1ean amaitu zan Espainian Gerra Zibila.



Sabino Iza.



Manu Aurrekoetxea.

Gerra Zibila Diman eta inguruetan. Kronologia bat

1937

Lehen hilabeteetan, ebakuazio handia. Martiaren 31n, Durangoko bonbardaketa. Aprilean eta maiatzean, Dima hegazkinez erasotu eben. Aprilaren 7an, Altun eta Zumeltza galdu ziran. Aprilaren 15ean Saibegain galdu zan. Burruka gogorra eta heriotza asko. Maiatzaren 23an, Dima eta Arratia frankisten esku. Bagilearen 5ean, Lemoatxa galdu zan. Bagilearen 19an, Bilbo galdu zan.

Aste Santua Euskadin, esperientzia barriak biziteko aukera parebakoa



Ibilbide labur bat, plan gastronomiko bat, itsasotik paseoa... zer egin gura dozu datozen egunotan? Bizi %100 Basque izaerako esperientzia bikoteagaz, taldean, familiagaz, gura dozun moduan. Aste Santuan ezetu Euskadi, ez zara damutuko, bizi egizu ahaztu ezin izango dozun esperientzia.

Esperientzia barriak izateko ez da urrin joan beharrik. Euskaditik urten barik be, plan ugari egin daitezke naturaz edo gastronomiaz gozatzeko. Aikomen aukera bi: euskal kostaldeko flyscha itsasotik ikusteko urtekerea eta Azurmendi jatetxeko esperientzia enogastronomikoa.

Flysch-a ezetuteko ibilbidea

Euskal kostaldeko geoparketik, Zumaiatik Mutrikura nabegau daiteke, 60 milioe urteko historia daukien itsas-labar ikusgarriak itsasotik ikusteko. Partaideak Mutrikun lehorreratu eta herriko alde historikoa ezetuko dabe. 45 minutuko atsedena egongo dabe Mutrikuko

portua eta alde historikoa bisitetako. Alde historikoa Monumentu-multzo izentautu dago.

Itsasontzian, gidari batek azaltzen ditu kostako herrietako bizimodu eta itsasora lotzean dituen tradizioak; Zumaiako untzigintzea, Debako merkataritza eta Mutrikun balearen ehiza, hain zuzen be.

Azurmendi jatetxeko esperientziak

Txakolinaren mundua ezetuteko bisita gidatuak antolatzen dabez Larrabetzun dagoan Azurmendi Gastronomikoa. Jatetxe bik eta upategiak osotuten dabe gunea. Gorka Izagirrearen upeltegian txakolina zelan egiten

dan ikusten dabe partaideak eta bisitea amaitutakoan, txakolina eta pernila dastatutako aukera izaten dabe.

Azurmendi jatetxeko Eneko Atxa sukaldariak hiru Michelin izar ditu eta bisitearen ostean, egile-sukaldaritza hau probatu gura izaten dabe askok. Menu desbardin biren artean aukeratu daiteke Azurmendi Gastronomikoa. Merkeago baina kalidadezko sukaldaritza saboreau gura izan ezkeru, Eneko Atxaren Pret-a-porter jatetxean be aukera dago.

Bazkalosten, Larrabetzuko herriak be merezidu dau bisitatxo, herriaren egiturea eta Ertaroko elementu arkitektonikoak ikusteko.



Flysch-a ezetu itsasontzitik. Zumaiatik Mutrikuraino itsasontzian, bertako geologia, kultura eta tradizioak azaltzen dituan gidari aditu batez. 45 minutuko atsedena Mutrikun eta Zumaiara buelta. Mutrikuko alde historikoa ez da gidaririk egongo baina mapak eta foiletoak bananduko dira. Hiru orduko iraupena. Gehienez 40 lagun. Urtekerea Zumaiako portutik, 9. untziratzelekutik, 16:30ean.

Noz: apirilaren 9an euskeraz; martiaren 24, 26, 31 eta apirilaren 2, 16, 23 eta 30ean, gaztelaniaz.

Kontuan izatekoak: urte batetik gorako umeak 15 euro pagau behar dabe. Urtekera ordua baino hamar mintu lehenago egon behar da bertan. Erropa eta oinetako egokiak eroan behar dira. Itsasoa zakar badago edo beste errazoi batzuegaitik bertan behera geratu daiteke bisitea. Hori dala eta, erreserba egiterakoan, kontakturako telefonoa itxi behar da. Antolakuntzeak ixten dauanean bertan behera, ez da gasturik sortzean eta dirua itzuli egiten da.

Egiteko errazoiak: Itsasoan egiten da; paisaje ikusgarriak ikusten dira; flyscha: lurraren historia harrizko liburu baten, dinosauroen desagertetaren teoria azaltzen da. Mutrikura bisitea eta pintxoak edo geoparkeko produktuak dastatzeko denporea eta arrain konserbak, sagardoa eta txakolina erosteko aukera dago.



Azurmendi Gastronomikora bisitea. Bisita gidatua Azurmendi gune enogastronomikora. 4 aukera: Upategira bisitea eta txakoli bat dastatzea; upategira bisitea eta Pret-a-Porter menua (janaurrekoa, lehenengo plater bi, arraina, okela eta postrea; ondoen bat egiten dauan ardaugaz); upategira bisitea eta Azurmendi Gastronomikoko Errotak menua, ondoen bat egiten dauan ardaugaz eta upategira bisitea eta Azurmendi Gastronomikoko Adarrak menua, ondoen bat egiten dauan ardaugaz. Ekintzaren barruan ez dago bertara joatea. Lehenengo aukerarako gitxienez 10 persona behar dira, besteetarako ez dago gitxieneko kopururik.

Egiteko errazoiak: Bizkaiko Txakoli Jatorrizko Izendapena daukien upategirik inportanteenakoa da eta leku ederrean dago. Jatetxeak errekonozimenduak jaso ditue: Azurmendi Gastronomikoa jatetxeak hiru Michelin izar eta Pret-a-Porter jatetxeak Bib Gourmand saria.

EUSKADI

Informazio gehiago: euskaditurismo.eus eta viajesporeuskadi.es

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garrok Espainiako Txapelketan podium bi**Erredakzioa**

Oskar Garro Igorreko ziklistea bitan igo zan podiumera Galapagarren (Madril) jokaturako Txirrindularitza Egokituko Espainiako Txapelketan; taldekako abiadura eta scratch

modalidadeetan, hain zuzen be. Garro Euskadiko Selekzinoko partaidea izan zan.

Zezeilaren 27an, persekuzino eta taldekako abiadurako modalidadeetako lasterketetan hartu eban parte Garrok. Lehenengo

lasterketan bosgarren egin eban Igorrekoak; bigarrenen, barriz, hirugarren egin eben Garrok eta bere taldekide Alfonso Postigo eta Amador Granadosek. "Pozik geratu ginan baina gehiago egiteko esperantzeagaz joan ginan" azaldu deutso BEGITURI Oskar Garrok.

Scratch

Hurrengo egunean beste lasterketa bi izan ebazan Igorrekoak, emotza desbardinakaz. Lehenengoan, kilometro modalidadeko lasterketan seigarren egin eban eta ez ebal proba ona egin balorau dau txirrindulariak. Ez zan holan gertatu scratch modalidadekoan. Izan be, 40 bueltako lasterketa honetan hirugarren egin eban eta pozik agertu da. "Kategoria guztietakoak batera urten ginan eta oso ondo urten jatan karrera. Niretzako sorpresa handia izan zan, mundialera doazen batzuen aurretik heldu nintzan eta".

MOTORRAK

Egin da txapelketako lehenengo enduro proba**Irati Urien**

Zallan hasi da 2016ko Euskal Herriko Txapelketako lehenengo enduro proba. Denporeari ja-gokonean egun gogorra izan zan martiaren 6koa motordunentzat, lupetza eta euria izan ziran protagonista Zallako Zalla Off Road Klubak prestatutako zirkuituan. Halanda be, Arratiakoak oso gustura lehiatu zirala kontau dabe. Gorospe anaiak podium inguruan betiko lez eta gazteenak gero eta postu hobeak lortuten, holantxi gelditu ziran klasifikazioan: beterranoetan hirugarren Pedro Gorospe eta seigarren Josu Gorospe; juniorretan, Jon Zuazo bosgarren eta Asier Zugazaga zortzigarren.

Egutegia aldatu egin dau Euskadiko Motoziklismo Federazioak eta konfirmata dagoz datak. Hurrengo Enduro proba apirilaren 10ean, Elgoibarren izango da eta Cross Country proba Aibarren (Nafarroa), apirilaren 30ean.

**Asier Zugazaga Zallan.**

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".

Izan zeu be Begitu-laguna!

PELOTEA

Txumuluxueta Gazte Mailan eta Lemoa Nagusietan Bizkaiko Trinkete Txapelkunak

Eskuz binakako Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak martiaren 5ean jokatu ziran Abadiñon.



Txapelkunak Abadiñon.

Erredakzioa

Arratiako bikote bi heldu ziran finalera eta biak lortu eben txapela. Kimetz Zapiko eta Lur Ziarrusta

Tumuluxuetaoak Gazte mailan, eta Lemoako Aitor Zilaurren eta Ireber Erañak Nagusien Bigarren mailakoa, hain zuzen be.

Kategoria bietan, errez irabazi

eben arratiarrak. Gazteen kategorian dimoztarrak 30-20 irabazi eutseen Sagasta eta Azkarragaiz Elorrioko Hori-Hori klubekoai. Bigarren mailako Nagusien kategorian, barriz lemoztarrak ondino tarte handiagoa atera eutseen euren aurkari. Urdulizko Fullaondo eta San Sebastianen kontra jokatu eben finala, eta 30-14 izan zan atzen emoitzea.

Ezker pareta

Lemoako pelotariak Trinketean eta Ezker paretan denporaldi bikaina egiten dabizela dino Aitor Erauzkin entrenatzaileak. Izan be, Ezker paretan Nagusien Bizkaiko azpitxapelkun dira eta Euskal Herriko binakako Txapelketako Nagusien Ohorezko mailako erd-finaleretara heldu dira.

FUTBOLA

III. Harrobi Futbol Txapelketa aprilaren 2an Lemoan

Erredakzioa

Hamabi taldek hartuko dabe parte aprilaren 2an Lemoako Arlonagusian Kimu mailako umeak jokatuko daben Harrobi Futbol Klubak antolatutako Txapelketan. Lemoan, Eliteko ligan eta Gipuzkoa eta Bizkaia mailan goren dagozan taldeetako kimuak Harrobi talde-

koakaz neurtuko dira.

Athletic, Erreal, Eibar, Osasuna, Atletico Madrid, Real Zaragoza, Baskonia, Logroño, Basander, Antiguoko, Lakua eta Harrobi taldeak jokatuko dabe Arlonagusian txapelketa irabazteko helburuagaz. Kanporaketak goizean izango dira 10:00etatik 13:00etara eta arrastian, finalerdiak eta finalak jokatuko dira.



FUTBOLA

Arratiako andrazkoak bigarren jarraitzen dabe

Erredakzioa

Arratiako nagusien nesken taldeak bigarren jarraitzen dau Gasteizko Neskak liderrarengandik 3 puntura. Atzen neurketa biak irabazi dabez arratiarrak, hilaren 12an jokatutako atzen partidua 1-4 irabazi eben Lakua taldearen kontra. Aurreko astegienean be garaipena lortu eben Igorrekoak Urbieta futbol zelaian jokatutako norgehiagokean. Oiartzun B izan eben aurkari eta bi eta hutseko emoitzeagaz amaitu zan partidua. Hurrengo partidua Igorren jokatuko dau Arratiak Barakaldo taldearen kontra. Zortzi partidua falta dira ligea amaituteko eta Arratia saiauko da hiru puntuko alde hori ezerezean ixten.

Gizonezkoak atzeko postuetan

Arratiako gizonezkoak osteran atzen partidua bietan puntu bakarra atera dabe. Somorrostoren kontra Igorren hilaren 12an jokatutako atzen neurketa banako emoitzeagaz amaitu zan. Aurreko astegienean osteran, 1-0 galdu eben Lekeitioren kontra. Hurrengo neurketa Trapaganen kontra jokatuko dabe Igorren. Denporaldia polito hasi eben baina 15. dago sailkapenean orain Arratia 25 puntugaz eta jaitsiera postuetatik sano hur dago.

MENDIA

II. Kolazinoko Mendi Eguna



Erredakzioa

Martiaren 19an izango da Bedian II. Kolazinoko Mendi Eguna. Hiru proba nagusi izango ditu: mendi martxea, BTT lasterketa eta mendi lasterketa. Parte hartzaileentzako bazkaria egongo da ondoren eta, arrastian, erromeria eta umeen lasterketa. Goizeko 08:00retan ekingo deusie 20 km.ko ibilbideari mendi martxako partaideak, ordu bete beranduago bizikletariak urtengo dira mendian zehar 34 km. egiteko, eta 10:00etan, 26 km.ko mendi lasterketa gogorra hasiko da. Sari banaketea 13:30ean

izango da.

Jai giroa Bedian

Proba gogorren ostean jai giroa izango da nagusi. II. Kolazinoko Mendi Eguneko partaideak alkarregaz bazkalduko dabe. Bazkalostean, 16:00etan, erromeria egongo da eta arrastiko bostetan umeentzako lasterketa. Mendiko jai hau Tiritu alkarreak antolatu dau Udalaren eta jente askoren laguntzeagaz. Boluntarioak lan egin dabe, hainbat dendak materiala ipini dabe eta abar. Kolazino Mendi Eguneko kantu ofiziala, Zeinke taldeak sortu dau.

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

BERTSOLARITZEA

Arzallus, Enbeita, Gaztelumendi eta Lujanbio Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

San Jose egunean bertan, martiaren 19an, izango da San Jose setako bertso saioa Igorreko Kultur Etxean arrastiko zazpiretan. Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbio osotuten dabe aurten go kartela.

Igorrekoa Arratian plazarik zaharretakoa da eta beti lehenengo mailako bertsolariak ekarten da-

bez publikoari bertsorik ederrenak entzuteko aukerea emoteko. Aurten goan be, lau bertsolari handi izango dira Igorren.

Amets Arzallusek 2013ko Txapelketa Nagusia irabazi eban eta aurrekoan, 2009koan, txapeldu norde izan zan. 2009ko haretan, Maialen Lujanbio izan zan txapel-duna eta 2013an, barriz, txapel-dunorde. Biak egongo dira San Jose setako bertso saioan.

Eurekaz batera, Onintza Enbei-



Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

ta eta Beñat Gaztelumendi egongo dira. Gaztelumendi 2013an egon zan Txapelketa Nagusiko finalean eta 2015ean bera izan da

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazlea; Enbeita Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean egon da hainbat bider.

ZINEA

Ekozinemaldia Artean

Erredakzioa

Ekozinemaldiko pelikula bi ikusi ahal izango dira Artean, martiaren 15ean, martitzenean, eta 17an, egunean; *Piztu aldaketa! Energia trantsizioak* eta *Honek dena aldatzen du* filmak, hain zuzen. Saioak eskolan izango dira arrastiko zortziretan.

Ekozinemaldia, Ekologistak Martxanek antolatuten dauan ekologiaren gaineko zine erakustaldia da. Aurten 10 urte beteten ditu eta edizino honetan 17 udalerririk hartzean dabe parte. Eredu energetikoa eta honen ondorio dan aldaketa klimatikoa da aurten go gaia.

Eredu energetikoa aldatzeko sasoa

Piztu aldaketa! Trantsizio energetikoa Ekologistak Martxanek berak ekoiztutako dokumentala da. Egungo energia eredu ekologia aldetik jasangaitza, eta sozialki bidegabekoa da. Baina badira munduan zehar honen kontra burrukatzen eta alternatibak martxan ipinten dabizan personak eta taldeak. Dokumental honetan, Euskal Herriatik abiatuta, Ipar eta Hegoaldeko hainbat esperientziatara hurreratzen dira egileak, bizitza proiektuak, erresistentziak eta proposamen politiko eta kooperatiboak ulertzeko asmoz. Bijaie honek beharrezkoa jakun energia eraldaketaren gakora doazen ikasketak eta erronkak erakusten ditu.

Naomi Klein eta Avi Lewisek *Honek dena aldatzen du* filman, klima aldaketari buruz hausnartzen dabe. Pelikulan zehar, Kleinek klima aldaketaren krisia aprobeitxau behar dogula dino, egun nagusi dan porrot egindako eredu ekonomikoa, hobe izan daiteken beste zerbaistegaz ordezkatzeko.

Ekologistak Martxanek euskertu dau filma.

ZEBERIOKO GAZTETXEA

Aisialdi alternatiboaren bila, antolatu egin dira Zeberioko gazteak

Jaialdi handi batez aurkeztu eben hilaren 12an

Zeberioko gazteak, zemendian sortutako Gazte

Asanbladea. Helburua, funtzionamentua eta antolatuko dituen itaunai erantzun deusez Asanbladakoak.

Erredakzioa

Zeberion lehendik be baegoan Gazte Asanbladea, ezta?

Bai, lehen baegoan beste Gazte Asanblada bat, baina ez dakigu zergaitik bertan behera geratu zan. Guk askotan pentsau dogu gazteak antolatu eta herrian aisialdia igartzeko alternatiben beharra dagoala, baina, gehienetan gure ekimena bertan behera geratu izan da errazoi desbardinengaitik. Azkenean, herriko zenbait gazte antolatu ginan eta zemendian Gazte Asanbladea sortu genduan.

Orduetik hona, gure harremanak indartu egin dira, herrian ezagunak ziran gazteak orain lagunak gara eta apurka-apurka giro alternatibo bat sortu izan dogu.

Helburua aisialdi alternatiboa sortzea izan da, orduan. Azaldu apur bat gehiago hori helburuari.

Herrian gazte mobimentu eta guretzat zuzendutako aisialdi alternatibo baten beharrak eroan gaitu honakoa sortzera. Beraz, gazteen aisialdiari jagokoneko alternatiba bat eratzea dogu helburu, beti be, ekintza kulturalak muinean izanik. Hau da, herriko

gazteak bildu, antolatu eta herrian ekintza kultural desbardinak aurrera eroanez, herria astinduz, berbirtuz eta jagokon bizitasuna emotea lortuko dogulakoan gagoz.

Urteak dira gazteak bertan bildu eta holango ekimen bat aurrera eroaten ez danik, hortaz, guk herriagaz daukagun konpromiso eta maitasunagaz emoten deusaguz zentzua proiektuari.

Ze funtzionamentu izango dau?

Hasieran bakotzak idea desbardinak eukazan eta lortu edota sortu gura genduanaren inguruan eztabaidatu eta guztiok alkarregaz bide bat eta helburu batzuk ezarri izan doguz, proiektuaren izaera eta nolakotasunak argi izanda.

Funtzionamentuari jagokonez, bakotzak dakarzan proposamenen inguruan berba egiten dogu eta ondoren egingo dana asanbladan guztion eretxia kontuan izanda aurrera eroaten dogu. Azken finean, ebatziak guztion ekarpenak eta interesak kontuan izanda hartzean doguz.

Bestetik aitatu behar dogu autogestioan oinarrituriko gazte asanblada bat garala, hau da pentsautu daukaguzan ekintzetarako herrian eskuragarri doguzan baliabideak erabiliko doguz.

Argi itxi gura dogu be bai, ez daukagula binkulazinerik ezelangotako partidu politikogaz. Gazte asanblada hau zabalik dago edozein herritarren proposamen edota kritikak jasoteko.

Ze ekintza klase daukaguz aurreikusita?

Ekintza desbardinak daukaguz pentsautu. Guztiak herriari eta bertako gazteai zuzenduak egongo dira, herriaren gabeziak bete guran. Bestalde, herrian dagozan beste alkarreaz ekintza puntualak aurrera eroatea gustauko litxakigu.

Aurreikusita daukaguzan ekintzen edo ekimenen artean ondorengoak aitatu geinkez: auzo lana, auto-hornikuntza, bulderra, pelikulak, berbalak eta abar.



Aurkezpen egunean Zeberioko gazteen bazkaria.

begitu
arrieta ubide zabalea

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Telefonoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)
garantxe@euskalnet.net

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

ARA OTZ
Lanegun O Jabetzen!

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY TABERNA
•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak
arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

LITERATUREA

Areatzako Literatura Astea

Erredakzinoa

Liburu aurkezpena, Areatzako I. Ipuin Lehiaketako sari banaketa, berbaldia eta liburuak trukatea edo bookcrossingak osotuten dabe martiaren 15etik 18ra ospatuko dan udalak antolatutako Areatzako Literatura Astea.

Liburuak trukatzeko, aurretik batu egin behar dira. Horregaitik martiaren 7tik 15era, etxean dagozan ume edo gazteen liburuak, ludotekan itxi ahal izan dira, hi-

laren 18an, 18:00etatik aurrera plazan gura daben liburuak hartzeko aukerea izateko. AKKBk, eta Suspertuk be lagundu dabe antolakuntzan.

Hilaren 15ean, Miren Agur Meabek *Gorpuztasuna Meaberen poetikan* izeneko berbaldia emongo dau. Barikuan, hilak 18, Mikel Alvirak *La novela de Rebeca* liburua aurkeztuko dau. Aurkezpena eta berbaldia udaletxeko areto nagusian izango dira, arrastiko zazpi 1/2erdietan eta zazpiretan, hurrengo hurrengo.

Areatzako I. Ipuin Lehiaketako sariak, hilaren 16an arrastiko seiretan bananduko ditue liburutegian.



Miren Agur Meabe.

ARGAZKIGINTZEA

Aprila argazki hilea izango da Areatzan

Erredakzinoa

Areatzako Udalak eta Bostok Photo agentziak antolatuta, aprilean argazkiaren hilabetea ospatuko da herrian. Hori dala eta, argazki erakusketak egongo dira tabernetan, hotelean zein leku publikoetan; argazkilarik profesionalak berbaldiak emongo dabez; umeentzako tailerrak egongo dira, fotomaratia eta proiektzioak be egongo dira kalean eta argazkia

protagonista izango daben beste ekintza ugari antolatuko dira hilean zehar.

Bostok Photo Agencyko argazkilariak arlo desbardinatan egiten dabe behar (natura, kirol eta fotokazetaritzan, besteak beste) eta ezagunak dira Areatzan; izan be, hainbat argazkilaritza ikastaro emon ditue udalerrian.

Argazkilaritzagaz lotutako zerbitzuak eskeintzen dituan kooperatiba da Bostok Photo.



LEHIAKETEAK

Igorreko euskerazko film laburren lehiaketako sari banaketa ekitaldia aprilaren 9an izango da



Erredakzinoa

Aprilaren 9an, arrastiko zazpiretan Igorreko Lasarte Aretoan izango da Luzetu Barik, Igorreko euskerazko film laburren sari banaketa ekitaldia. Ekitaldian, aurkeztu diran lan guztiak ikusi ahal izango dira, sei film labur, eta ondoren sari banaketa izango da.

Lau sari bananduko dira: film labur onenarentzako 1.000 euro; Arratiako egileen lanik onenarentzako 600 euro; 14 eta 25 urte

bitartekoen kategoriako film onenarentzako 500 euro eta, umeen kategorian, 7 eta 14 urte bitartekoan, 200 euro.

Igaz baino lan gitxiago izan dira aurten lehian, eta etorkizunari begira parte hartzea sustatu gura dau Igorreko Udalak. "Hurrengo Luzetu Barikera asmoa da herriaren parte hartzea bultzatu eta lantalde berezi bat sortzea zabalkunde eta kudeaketa modu eraginkorragoan bideratzeko" azaldu deutso BEGITURI Janire Lopez Igorreko Kultura Teknikariak.

DUNBA

Zeanuriko frontoiko kirolak

Zeanuriko eskolako 6. mailako ikasleak

Zeanuriko herriko frontoian kirol desbardinak jokatzen doguz, pala eta esku pelotea eta orain horreetaz berba egingo deusuegu.

Pala taldea 2013. urtean sortu zan, hau da, orain dala hiru urte. Pala sortu zanean neskak eta mutilak batera hasi ziran, baina mutilak nagusiagoak ziran neskak baino. Adin guztiak ez ziran batera hasi, lehen bederatzirte gora apuntatu behar zan baina orain bost urtetik gora.

Pala sortu zan, neskak afizino handiagoga eukielako esku pelotan baino.

Lehenengo hamar urtetik hamalau urtera bitartean hasi behar ziran jokatzen eta urteak pasatuz adin guztietako neskak apuntatu ziran.

Zeanurik, gaztetxoak, seniorrak, umetxoak eta umeak eskolarteko gomazko paleta txapelketak jokatzen ditue. Konpetizino partiduak

herri desbardinatan izaten dira.

Palako arauak oso errezak dira.

Benjaminak, Alebinak, Infantilak eta Nagusiak parte hartzean dabe.

Txapelketan talde honeek dagoz: Montorre, Olarreta, Iurreta, Areatza, Gatika, Olgetan, Bidebieta, Alaitasuna, Kurene, Lea ibarra, Atxondo, Joko Alai, Getxo, Upo mendi, Galip, Mallabia eta Elorrio.

Urtearen arabera arau desbardinak dagoz.

Adinaren arabera zenbaki konkretu batetik ateratzen da sakea, eta beste zenbaki konkretu batera heldu egin behar da jokoa (tantoa) hasteko...

Zeanuriko esku pelota taldea, herriko jenteak plazako frontoian jokatzen ebalako eta euria egiten ebanean, ezin ebelako jokatu sortu zan. Horretarako Zeanuriko Udalak, Ibarreta auzoan (plazan) frontoi itxi eta handi bat egin eban. Zeanuriko esku pelota taldea, Joko Alai alkarteak bultzatzen dau eta giti gorabehera hogeta hamabost



pelotari eta zortzi kategorian dagoz. Esku pelota taldean adin guztietako personak dagoz: handiak, txikiak...

Joko bi egoten dira eta joko bakotxa hamar tantora jokatzen da. Talde bakotzak joko bat irabazten badau desentpatea egoten da. Desentpatea bostera da eta talde batek bi set-ak irabazten baditu ez dago desentpaterik. Lehenengo jokoa atzean hasten bazara, bigarren jokoa aurrean amaitu behar dozu eta desentpatean bakotxa gura dauan lekuan jarri ahal da.

Esku pelotako lehenengo txapelketa Arratia-Nerbioi izaten da, Arratia-Nerbioin A eta B Txapelketak egoten dira. Hasibariak, Pre-

benjaminak, Benjaminak, Alebinak, Infantilak, Kadeteak, Jubenilak eta Nagusiak parte hartzean dabe adinetan, eta Arratiako taldeetatik: Areatzak, Dimak, Igorrek, Lemoak eta Zeanurik.

Txapelketan, hamar pelota eskolak hartzean dabe parte, bostehun pelotari inguruk. Txapelketako lehenengo laurak prebia batzuk jokatzen ditue, Bizkaiko txapelketa-joateko. Bi multzo egoten dira A eta B, prebia horreek irabazten dabenak Bizkaia A-n jolasten dabe eta galtzaileak B-n. Multzo bakotxean zortzi taldekidek parte hartzean dabe. Txapelketa jokatu eta gero A multzoko lehenengo seirak pase-



tan dira eta B multzoko lehenengo biak, eta horreen artean jokatzen dabe Bizkaiko Txapelketa.

Beraz, animetan bazara, erdu geugaz palan edo esku pelotan jokatzeraz!



AGENDEA

MARTIAK 15

AREATZA

Bookcrossing, liburu trukaketa egiteko liburuak ixteko atzen eguna. Ludotekan.

19:30ean, Miren Agur Meabe idazlearen berbaldia "Gorpuztasuna Meaberen poetikan" Udaletxeko Areto Nagusian.

ARTEA

20:00etan, Ekologistak Martxan-ek antolatutako Ekozinemaldia *Piztu aldaketa! Trantsizio energetikoa* filma eskolan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, Txiki-Txokorako, Udalekuearako eta Bediako Uda Gaztearako izen emotea. Liburutegian.

IGORRE

Ikuspegi femeninoak etorkizuna eraikitzen erakusketea. Hilaren 31ra arte, Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

LEMOA

Hilaren 18ra arte, Ortua balkoian ikastaroan izena emoteko epea zabalik Udaleko Kultura Zerbitzuan. Ikastaroa astelehenera izango da apirilaren 4tik 18ra 18:30etik 20:30era.

Apirilaren 23ra arte Lemoako V. Narrazio Lehiaketara lanak aurkezteko epea.

ZEANURI

11:00etan, hilaren 17ra arte, jubiladu eta pensinodunentzat telefono mobikorraren gaineko ikastaroa Kultur Etxean. Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta.

MARTIAK 16

AREATZA

18:00etan, Areatzako I. Ipuin Lehiaketako sari banaketea liburutegian.

Apirilaren 9an, Aiako Harriak eta sagardotegira urtekerea. Goizeko 08:00retan eleiza portikuan. Bueltea arrastiko 20:00etan. Minimoa 25 persona. Ibilbidea: Elurretxe-Irumugarrieta (806m.)-Txurumuru (827m.)-Erroilbide (837m.)-Elurretxe. 7,75 kilometro eta 630 metro desnibel. Prezioa: AKKBko bazkide edota Lamino taldeko federaduak



Hesian taldeak kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean

Martiaren 18an, barikuz, iluntzeko 21:00etan, Hesian taldeak *Hegalak astinduz* izeneko kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan.

Taldeak musika indartsua eta bizia egiten dau, haizeko tresna eta neska-mutil abotsakaz hornidutako pop-rock eta punk-rock melodikoa, hain zuzen. "Berba sakonak eta konprometiduak, burrukalariak, esanguraz beteak eta itxaropentsuak, iluntasunean argia bilatzen dabenak. Horixe da Hesian" dinoe taldekoak.

Taldeak 2006ko udabarran hasi eban bere ibilbidea Etxarri Aranatzen (Nafarroa). Orduetik hona, 400 kontzertu baino gehiago emon dauz Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo eta estudioko bost disko kaleratu dabez. (*Maite dugu*, 2007; *Herriaren oihua*, 2008; *Borrokatu eta irabazi*, 2010; *Hitzetik*, 2011; *Hegalak Astinduz*, 2014) eta zuzeneko CD/DVD bat (*Hemen eta orain*, 2013).

40€. Bazkide ez diranak 50€ (autobusa eta sagardotegia barne). Izena emoteko emailaz, telefonoz, Whatsapp bidez (646 355 550) edota udaletxeko hirugarren solairuko gelan 19:00etatik 20:00etara. Atzen eguna martiaren 18a.

MARTIAK 17

AREATZA

18:00etan, Victor Ullate Euskalduna Jauregian ikusteko autobusa. Eleiz portalean.

ARTEA

20:00etan, Ekologistak Martxan-ek antolatutako Ekozinemaldia. Naomi Klein-en *Honek dena aldatzen du* pelikulea eskolan.

IGORRE

08:30etik 14:00etara, Motxoganean antolatutako Pazkoako udalekuean izena emoteko azken eguna. Telefonoak: 94 425 58 42, Mikel 679 304 582 eta Maitane 695 756 168.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

MARTIAK 18

AREATZA

18:00etan bookcrossing, liburuak kalera. 19:00etan, Mikel Alvira idazlearen *La novela de Rebeca* liburuaren aurkezpena udaletxeko areto nagusian.

ARTEA

18:00etan, Abian Kultur Dinamikea.

BEDIA

16:30ean, Txiki-Txokorako, Udalekuearako eta Bediako Uda Gaztearako izena emoteko azken eguna. Liburutegian.

DIMA

17:00etan Cataplina ipuin kontalariak "Class Two at the Zoo" ipuina kontauko dau ingelesez. Liburutegian. 5 urtetik aurrera.

LEMOA

Ortua balkoian ikastaroan izena emoteko azken eguna. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

ZEANURI

Gurutze Gorriak antolatuta, jubiladu eta pensinodunentzat mendi ibilaldia Zeanuri-Undurraga-Ipiñaburu. 10,79 km. Presatik

bisita gidatua.

MARTIAK 19

BEDIA

II. Kolazinoko Mendi Eguna. 08:00retan, mendi martxea; 09:00etan BTT lasterketea; 10:00etan, mendi lasterketea.

IGORRE

19:00etan, Sanjosetako bertso saioa. Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *La gran apuesta* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 20

IGORRE

17:00etan, zinea *Zootropolis*; 19:30ean, zinea *La gran apuesta* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Los educadores*. Plazako ermitan.

MARTIAK 24

ZEANURI

Hilaren 27ra arte, Batu eta banatu kanpaina. Galtzean ez diran jatekoak batuko dira Andra Mari Eleizan.

MARTIAK 29

IGORRE

08:30ean apirilaren 1a arte, Motxoganean antolatuta, Pazkoako udalekuak Batzokian.

ZEANURI

11:00etan, hilaren 31ra arte, jubiladu eta pensinodunentzat Interneten erabilerearen gaineko ikastaroa. Gurutze Gorriak antolatuta.

APRILAK 2

IGORRE

22:00etan, zinea *Spotlight* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, III. Harrobi Futbol Txapelketea Arlonagusian.

APRILAK 3

IGORRE

17:00etan, zinea *Robots, la invasión*; 19:30ean, zinea *Spotlight* Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

DANERIK

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrean! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIRUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotzak. 659 395 911.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera San Josetako bertso saiorako.

Joana Etxebarria (Igorre)
Maitane Uriarte (Zeanuri)

San Josetako bertso saioa Igorren



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Hesian taldearen kontzerturako.

Aitor Iglesias (Basauri)
Gabriel Erdoiza (Lemoa)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Asteko egun bat. 2.- Epotx. Bokala.
3.- Haize indartsu. 4.- Aldats. Bildur handi.
5.- Suagaz batera. Oxigenoa. Ernea ez dana.
6.- Modu, era. Edo. 7.- Salatu egiten dauana. 8.- Bat erromatar. Umila. 9.- Arrabita.

GOITIK BEHERA

1.- Zer. Eskolan egiten da. 2.- Gozokiak daukie. Boroa.
3.- Bardin. Pozik. 4.- Barazki bat. Ernaltzeko erabilten dan txarri ar.
5.- ...taka. Zati. 6.- Uranioa. Azalora. 7.- Probetxu. (Atz.) Sodioa.



Topau Olinpiadak Europatik kanpo ospatu diran zazpi uriren izenak.

A	R	M	U	N	I	C	H	O	L
S	E	G	O	O	I	K	O	T	I
A	M	E	B	A	M	E	R	B	O
P	O	S	T	R	E	B	O	U	N
E	N	T	A	T	L	A	N	T	A
D	R	I	N	K	B	E	R	L	E
A	E	G	A	U	O	Z	P	O	M
Z	A	R	K	L	U	B	E	R	A
Y	L	H	L	P	R	I	K	E	R
D	E	K	O	U	N	G	I	N	U
O	S	L	O	N	E	U	N	R	B
M	E	R	E	L	I	S	U	A	R
I	H	U	Y	E	N	D	Y	S	I
L	O	N	D	O	N	R	E	K	P
A	G	O	R	I	K	A	S	M	E

AKIKI MIKO

Iman Olatu



umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 • Telefonos: 94 673 60 14 • IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, beheha
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza • Tfnos 649 86 95 36

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) • Tfnos.: 94 673 64 25

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, beheha - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuzkoan zain enderez
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonos 94 631 36 31 • Faxa 94 673 70 83
e-posta: uruzulu@arratia.net

JON GOMEZ GARAI

"Urtailean jaio zan BEGITUREN egitura antzekoa daukan Binke! hilabetekari herrikoa"

Berak be onartzen dau geldirik egotea ez jakola gustetan: aurkezle, musikari, kantari, hizlari, ezkontza edo ekitaldien antolatzaile... ibiltzen da Jon Gomez Garai galdakaoztarra. ETBn ibili da azken urteotan, zuzeneko saio bereziak aurkezteaz aparte, IBIL2D saioan eta oraintsu aurkeztu eta zuzendu dauan SexSua saioan ikusi dogu. Azken hau euskeraz sekula egin dan hezkuntza sexualaren inguruko telebista-saioa izan da. Guk barriz, Igorreko Lasarte Aretoan sare sozialen garrantzia eta arriskuen inguruan berbaldia emon aurretik alkarrizketatu dogu; besteak beste, urte barriagaz batera Galdakaon eta Usansolon sortu dan lehenengo euskerazko aldizkariaren inguruan berba egiteko. Binke! hilabetekariaren koordinatzailea da Gomez Garai.

Erredakzinoa

Urteagaz batera sortu dozue Galdakao eta Usansoloko lehenengo hilabetekari euskalduna. Bazan ordua, ezta?

Binke! Urteak egin doguz geure herrian kejaka, euskerazko komunikabide propiorik ez gendualako. Baina igaz lagun talde anitza alkar-tu eta kejeteagaz ezer egiten ez

genduala ebatzi genduan. Esan eta egin. Urtailean jaio zan BEGITUREN egitura antzekoa daukan Binke hilabetekari herrikoa.

Zelan hartu dau jentek? Pozik zagoz egin jakon harrere-agaz?

Oso pozik! Proiektuak erakunde, komertzio eta enpresen laguntzea daukan arren, herritik jaiotakoa da. Alegia, herriak berak lau haizeta-

ra eskatu izan dauan beharizana izan dalako. Eta ikusten gabiz, kallean zein erredakzinora heltzean diran mezuakaz, herritarrak pozarren hartu dabela proiektua. Euren eskura jarri gura dogu Binke!, baina herritarrak be izan behar dira ekonomikoki proiektu euskaltzalea hauspotuko dabenak, horregaitik "binkekideak" egiten gabiz. **Berbaldiak be emoten dozuz eta Igorreko Lasarte aretoan egongo zara gazteai sare sozialen garrantzia eta arriskuen gainean berba egiten. Sare sozialetan ez dagoana, ez da? Badago bizitzarik sare sozialetatik kanpo?**

Hortxe dago kontua. Sare soziale-tatik kanpo badagoala mundua. Edozein persona helduk zorotzat hartuko deuste baieztapen hau entzutean, baina gaurko gaztetxoak internet eta teknologia barrien garaian jaio dira. Uste dabe dana horren inguruan mobiduten dala eta helburua ahalik eta "atsegin" gehien jasotean dagoala Facebook edo Instagram-en, esaterako. Eta heldu da momentua non ez dogun bizitza erreala eta birtuala bereizten. Horrek badaukaz bere arriskuak. Urrinera joan barik, hortxe dagoz cyberbullying, sextorsion eta antzeko kasuak. Horrek saihestu eta geure pantaileari begira gagozala mundu eder bat eskapetan jakunaz ohartarazotea da berbaldien asmoa.

Musikaren munduan be sartuta zagoz. Oxabi erromeria taldeko abeslaria zara eta kale animazinoa be egiten dozu.

Erromeria berbiztu egin da ala inoz ez da gaixorik egon? Musika tradizionala ondo buztartzen da mundu teknologiko honegatz? Ze etorkizun ikusten deutzazu?

Hamar urte daroaguz Oxabi erromeria taldeagaz eta inoz baino indartsuago gagoz erreperitorio, azpiegitura eta eszenaratze alde-tik. Urteko kontzertu kopuruak be urtetik urtera gora egiten deusku nabarmen eta beraz, guretzako sekula ez da erromeria gaixorik egon. Baina egia da azken urteotan erromeriaren modak talde gehiago sortzea ekarri dauala. Ez dakit, akaso edozein plazatan salteako errezagoa dalako erromeria talde bat beste edozein estiloko taldea baino. Hori bai, etsai nagusi bi ikusten deutzadaz erromeria eta geure musikari: gero eta erromeria talde gehiago bai baina kalidadez oso eskasak diranak dagozala

eta jaietako antolatzaileak gurago dabela, diru kontuakaitik pentsau gura dot, DJ bat kontratau zuzeneko musikea baino. Geuk musika tradizionala egungo musikeagaz eta teknologiaz buztartzen dogu, baina DJen teknologiaren kontra ezin dogu ezer egin.

Pentsetan dot zaletasunagaitik hasiko zinala honetan...

Duda barik. Musika eta komunikazio munduan diruagaitik bazabiz, berandu baino lehen igarriko jatzu eta fustrau egingo zara. Batez be asko diruagaitik sartzean diralako mundu honetan eta denporeagaz ikusten dabelako ez dirala aberats egingo. Gainera, egiten dozunari pasinorik ipinten ez badeutzazu, jai daukagu! Binke!, Oxabi eta aurkezpen edo berbaldiez aparte Andra Mari jantza taldean musikari nabil txikitatik eta berton hasi jantan, batez be, geure kultura eta musikagaitik zaletasuna.



Arratia
Ubide eta zeberrioko
euskeria
eta kulturearen alde

Hamabostero
Degitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozuz.

Zoagi eta helbide honetara bidali:
Zertu Kultur Elkartea,
Berrito Plaza 21, 48112 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
musika euskeraz